

URTEKO TXOSTENA



GIPUZKOAKO GIZARTE
LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO
SOCIAL DE GIPUZKOA

INFORME ANUAL



GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA

Javier de Barkazitegi Kalea, 21, sol. art. C

20010 Donostia

943 47 32 87

gipuzkoa@cgtrabajosocial.es www.trabajosocialgipuzkoa.org

JARDUEREN TXOSTENA

2022



AURKIBIDEA

1.- ELKARGOA, NORTZUK GARA?

- ❖ Organigrama
- ❖ Ohiko Asanblada Orokorra
- ❖ Gobernu Batzordeko bilkurak
- ❖ Elkargokidetzaren egoera
- ❖ Lan taldeak

2.- ELKARGOKIDEEI ZERBITZUAK

- ❖ Informazio eta aholkularitza profesionala Zerbitzua
- ❖ Oposaketen Epaimahaiak
- ❖ Lan eskaintzen kudeaketa
- ❖ Erantzukizun Zibileko Asegurua
- ❖ Liburutegia
- ❖ Etengabeko prestakuntza
- ❖ Teknologien erabilera eta beste konpromiso berriak

3.- DEONTOLOGIA PROFESIONALA: HERRITARRENTZAKO BERMEA

- ❖ Informazio eta aholkularitza profesionala Zerbitzua

4.- PARTAIDETZA ETA ERAKUNDETAN ORDEZKARITZA

- ❖ Gizarte Langintzaren Kontseilu Orokorra
- ❖ Elkargoartekoa.
- ❖ Eusko Jaurlaritza
- ❖ Udalak
- ❖ Unibertsitateak eta beste Elkargo Profesionalak
- ❖ Komunikabideak

5.- PRESTAKUNTZA

6.- GIZARTE LANGINTZARI BALIOA EMANEZ

- ❖ Gizarte Langintzaren Munduko Eguna



0. AURKEZPENA

Elkargokide agurgarriak:

Aurten ere, Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargoan 2022an egindako lanaren memoria duzue esku artean. Aurten data berezia eta garrantzitsua izan da Gipuzkoako Elkargoaren 40. urteurrena dela eta, aitzakia paregabea Elkargoaren ibilbideaz hausnartzeko eta etorkizuneko lan-ildoak zehazteko. Garrantzitsua deritzogu gure Elkargoaren historia aztertu, ezagutarazi eta balioan jartzea.

Elkargoaren historiari begira, 1962an Gipuzkoako Gizarte Langileen Elkartea sortu zen, Gipuzkoako gizarte-langileek kolektiboki ordezkaturik egoteko beharraz jabetuta, eta gaur egun elkargoko 700 elkargokide baino gehiago izatea atsegin dugu.

2022an ez dugu ospakizun berezirik egin, baina 2023ko martxoaren 17an, Gizarte Lanaren Munduko Egunaren inguruan (martxoak 21), ospakizuna egin genuen, alde batetik, Gipuzkoako Elkargoaren 40. urteurrena eta Gizarte Lanaren Munduko Eguna ospatzeko, eta, bestetik, 2020, 2021 eta 2022 urteetan erretiroa hartu duten 15 elkargokideei omenaldia egin genien, gure lanbideari ekarpen handia egin dioten gizarte-langileak izanik, aurten Ana Sanz Diez de Uribe elkargokide beteranoari Gizarte Langintzako intsignia ere eman genien.

Aurten ere, eskura duzue Gipuzkoako Gizarte Laneko Elkargoan 2022. urtean egindako lanaren Memoria.

Barne eta kanpoko lan-ildoak honela sailkatzen dira:

Barne mailan, Gizarte Lanaren alde lan egin da, batez ere, lanbidea ezagutarazi eta komunikazio plan bat egiten hasi gara, Elkargoa eta gure lanbidea sustatu eta ezagutarazteko helburuarekin. Era berean, langile taldearen lanaldi zabaldua mantendu da, elkargoko kideen arreta hobetzeko asmoz eta iristen diren eskaera guztiei erantzuna eman ahal izateko.

Kanpo lanetan, hainbat eremu eta jardueratan, gizarte-lanaren ikuspegitik ekarpenak egin dira. Horrekin batera, entitate eta erakunde ezberdinekin aliantzak sortu dira eta datozen urteetan lan ildoak hauei jarraituko zaie.

- Gure lanbidearen presentzia bermatu dadin, gai sozialak lantzen diren kontseilu eta organoetan parte hartu dugu. Bilerak eta gizarte-arloko proiektuen zabalkundea, hala nola BelaunaldiakLab, AECC, Herritarren Harrera Sarea, Bihotzetik e.a.
- Eusko Jaurlaritzaren Haur eta Nerabeen Legearen aurreproiektuari, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen ED proiektuei Gizarte Langintzako ekarpenak egin.
- Gizarte Laneko Kontseilu Orokorak antolatutako prestakuntza, gogoeta- eta lan-taldeetan parte hartu honako gai hauek lantzeko: Gizarte Zerbitzuaren eredia, Gizarte Zerbitzuen Estatuko Legea, Gizarte Laneko profesionalen eginkizunei eta eskumenei buruzko txostena, elkargoko kide egitearen derrigortasuna, kontrol deontologikoa eta diziplina-ahala.
- EAEko Unibertsitate eta Gizarte Laneko Elkargo Profesionalen arteko hausnarketarako eta lankidetzarako espazioak sustatu, besteak beste gizarte-zerbitzuen gainbegiratzea, gizarte zerbitzuen ebaluazioa eta kalitatea, autozaintza profesionala, arrisku psikosozialak, burnoutaren.




- Gizarte esku-hartze guneetan Gizarte Langileen figura defendatu administrazio publiko zein entitate pribatuen aurrean.

Gobernu Batzordeak eskerrak eman nahi dizkizuegu ekintzak gauzatu ahal izateko, modu batean edo bestean lankidetzan aritu zareten kide guztiei. Eta gure lanbideak aurrera egin dezan, ildo berdinetik jarraitzera animatzen zaituztegu.

Junta Gobierno

1. ELKARGOA, NORTZUK GARA?

- **ORGANIGRAMA**





OHIKO ASANBLADA OROKORRA

Lehenengo aldiz, iazko Ohiko Asanblada Orokorra modalitate mistoan ospatu zen (online eta aurrez aurre Elkargoko egoitzan) ekainaren 20ean, 13 elkargokidek parte hartu zuten.

GOBERNU BATZORDEKO BILERAK

2022an, Gobernu Batzordea 8 aldiz bildu da, ondorengo datetan:

- Urtarrilak 18
- Martxoak 14
- Maiatzak 2
- Uztailak 26
- Irailak 19
- Urriak 4 eta 7 (ezohiko bilkura)
- Urriak 25

HAINBAT BILERA

2022an, Gobernu Batzordeko kideek Elkargoko Kudeaketa eta Prestakuntza Batzordetako hainbat bileretan parte hartu dute. EAEko hiru Elkargoen arteko bilera bat ere egin zuten joan den maiatzaren 18an, 4 Elkargoetako (Nafarroa barne) idazkarien arteko bilkura abenduaren 16an. Kultur Atelier komunikazio agentziarekin ere hainbat bilera egin ditugu, Elkargoko branding estrategikoa eta bideo korporatiboa egiteko helburuarekin.

Elkargokideekin ere bildu gara, lan taldeak sortzeko edo gai zehatzetan aholkuak emateko proposamenak egin dizkigute. Horien artean, Ibaiondo, Osasun Mentaleko taldea, Osakidetza eta oposizioetarako irizpide bateratuak.

ELKARGOKIDETZAREN EGOERA

Elkargokide kopurua, 2022ko abenduaren 31an: **804** elkargokide.

Baja kopurua 2022an:: **33 (5 jubilazioak dira)**.

Alta kopurua 2022an: **65**

Elkargokideen artean, 91 pertsona jubilatuta daude.

2022an, elkargokidetza kopuruak apur bat behera egin duen arren 2021eko datuekin alderatuta, azken urteekin konparatuz altak bikoiztu egin dira. Alta gehienak modu telematikoan ematen dira, aurrez aurre Elkargoko bulegoetara etortzen diren pertsonen portzentaia txikia da.



- **Elkargokide kuota murriztuak**

Langabezian dauden elkargokideei aplikatzen zaizkie, baita familia ugaria edo guraso bakarrekoa diren eta/edo seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi murriztu egoeran dauden profesionaleri ere. 2022. urtean, kuota murriztuaz baliatzeko beste baldintza gehitu zen, prestazio ekonomikoren bat jasotzea.

Egoera guztiak behar bezala egiaztatzen dira. Beste kasuistika mota batzuk, hala nola aldizkako kontratuak edo egoera bereziak, Idazkaritzak baloratzen ditu. Nabarmendu behar da Elkargoak murrizketa horiek aplikatzen dituela elkargoaren kuotetan, baina Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorrak ez duela deskontu hori aurreikusten kuoten likidazioan (ekainean eta abenduan), hainbat alditan aldarrikatu dugun arren.

Prezio murriztua Elkargoak eskainitako prestakuntzetan ere aplikatzen da.

2022. urteko bigarren sei hilekoan, 10€tako igoera adostu zen elkargokide kuotetan, hau da, lanean ari diren elkargokideei urteko 20€ren igoera eta aldi proportzionala kuota murriztuetan.

2021an, aurrekolegiazioaren figura itzuli zen. Gipuzkoan duela urte asko egon zen modalitate hori berriro ezarri da. Elkargokide egin aurreko figura karrerako azken urteko ikasleei dagokie; izan ere, ikasle horiek elkargokideei eskainitako zerbitzu gehienak jasotzen dituzte, baina kostu askoz murriztuagoan (32€ urtean). 2022. urtean oso aurrekolegiazio gutxi egin ziren baina datozen urtetarako, figura hau pixkanaka inplementatzen joatea espero dugu.

- **Nahitaezko elkargokidetza**

Estatuko 2/1974 Elkargo Profesionaleri buruzko Legeak, Eusko Jaurlaritzaren 18/1997 Legeak eta gure Estatutuek, elkargokidetzaren derrigortasuna ezartzen dute Gizarte Langile gisa jarduteko, nahiz eta Gizarte Langintzako berariazko eginkizunak ez bete. Lanpostu hori Gizarte Langintzako tituluaren bidez eskuratzen bada, nahitaez elkargokide izan behar da. Administrazio publikoei, erakundeei, elkarteei eta enpresei, bai eta profesionaleri ere, indarrean dagoen araudiaren berri emateko eta araudi hori betetzeko derrigortasunari begira, 2023an abokatuarekin argudio juridiko bat egiteko aukera aztertzen ari gara, hura zabaldu ahal izateko. Beren lan-eskaintzak elkargoaren bidez zabaltzen dituzten erakundeek, araudia betetzeko eta langileei elkargokidetza eskatzeko betebeharra dute.

LAN TALDEAK

Haur eta Nerabeen gaietarako Eskualdeko Taldeak

2021ean adostutako jarduerekin jarraitu da. EZIAko Raul M., Kontseilu Orokorreko GBko bokala den Alvaro Gallok eta EZIAko beste GL batzuk, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak balioesteko eta babesteko beste Autonomia Erkidego batzuetan Gizarte Langileek betetzen



dituzten eginkizun zehatzak ezagutzeko galdetegi bat prestatu zuten. Kontseilu Orokorrek estatu osoan zabaldu du galdera-sorta, eta azken txosten bat egingo du, Estatuko egungo errealitatea jasoko duena. Gure figura profesionalak balorazio eta koordinazio funtzioak betetzen dituela eremu honetan egiazatu nahi da, GFAREN aurrean argudiatu eta defendatu ahal izateko.

Deustu eta EHUko unibertsitateekin bilerak egin dira, baita EZIAko Raul M. Gizarte Langilearekin eta Alvaro G.rekin, gaia koordinatu ahal izateko. Datorren urtean ere lan ildo hori lantzen jarraituko da, Kontseiluaren txostena argitaratuko da, Balora tresnaren berrikuspena egingo da balorazio soziala eta psikologikoa sartzeko, eta gure eskumenak argudiatzeko, lan eremu honetan gizarte balorazioak eta koordinazioak egiteko Gizarte Langintzako profesionalen beharra azpimarratuko da.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako arduradunak

Gizarte Zerbitzuetako arduradun gisa lan egiten duen elkargokide batek eskatuta, Elkargoak bilera bat antolatu zuen Gizarte Zerbitzuetako arduradunekin, taldeak berak adostutako hainbat urrats eta dinamika adosteko. Beharrak, zalantzak, jardunbide egokiak detektatzea, zerbitzuei, programei eta abarri buruzko informazioa partekatzea da helburua. Elkargoak bat egin zuen eskaerarekin, profesionalen arteko koordinazioak eta lankidetzak ahalbidetuko dituzten espazioak sortzea ezinbestekoa ikusten duelako.

Profil profesionala

Urteak dira Administrazio Publikoek argitaratzen dituzten **Gizarte Zerbitzuen kudeaketarako lizitazioen Plegu Teknikoen** aurkako errekurtsioak aurkezten direla, baina azken bi urte hauetan errekurtsioen kopuruak goraka egin du modu nabarmenean Gizarte Integratzaileen Elkarte Plegu Tekniko asko errekurritzen ari delako.

Eusko Jaurlaritzak 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legearen 73.3 artikulua ez du garatu, bertan gizarte zerbitzuetako taldeen profil profesionalak ezartzeko beharra eta betebeharra ezartzen zen, esku hartzeen diziplinartekotasuna bultzatuz, talde lana sustatuz eta esku hartze sozialaren eremuko lanbideen ekarpenak integratuz.

78.3 artikulua dionez, Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa aplikatzeko beharrezkoak diren lanbide jarduerak gauzatzeko lanbide kualifikazio egokiak zehaztu behar dituela Eusko Jaurlaritzak. Horrela jasotzen du gainera EAEko Gizarte Zerbitzuen 2014-2019 Plan Estrategikoak, landu beharreko ardatzetako batean: *“Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa aplikatzeko beharrezkoak diren lanbide jarduerak gauzatzeko lanbide kualifikazio egokiak definitzea eta arautzea”*.

Eusko Jaurlaritzak lan talde horiek eratzeko araudirik garatu ez duenez, hutsune legal baten aurrean aurkitzen gara. Duela gutxi arte, administrazio publikoek unibertsitateko titulazioa zuten profilak eskatzen zituen esku-hartze psikosozialak, sozioedukatiboak, koordinaziokoak eta zuzendaritzakoak egin ahal izateko, baina araudi espezifikorik ez dagoenez, KEAOK (Kontratuen inguruko errekurtsioen Administrazio organoa) arrazoia ematen ari zaie Gizarte Integratzaileei, eta hauek funtzio horiek egiteko gaitasuna dutela argudiatzen dute, orain arte Unibertsitateko tituludunentzat bakarrik zirenak, eta ez Goi Mailako Lanbide heziketako ikasketentzat.



Egoera horrek kezkatzen gaitu, errekurtsioek lizitazio asko geldiarazten dituztelako eta Gizarte Zerbitzuetako arduradun askok ez dakitelako profilak nola zehaztu eta ezarri, esku-hartzeen kalitatea eta Legea betetzen dela bermatuz. Elkargoak aholkularitza eman die eskatu duten arduradunei.

Ondorioz, EAEko Gizarte Langintzako hiru Elkargok idatzi bat egin eta Eusko Jaurlaritzari igorri diogu, legea betetzeko eta arautzeko eskatuz, eta Elkargo Profesional desberdin eta gizarte arloko hainbat elkarte osatutako lan-mahaia sortzeko proposatuz, lantaldeak eratzeko helburuarekin. Gure figura profesionala defendatzeaz eta aldarrikatzeaz gain, gure lanbidearen berezko funtzioak, txosten soziala, diagnostiko soziala eta abar ere defendatu nahi ditugu.

Idazkia jaso ondoren, EJKo Gizarte Politiketako Departamentutik, bilera deialdia luzatu digute 2023ko urtarrilean, gaia jorrazteko.

Osakidetza

Osakidetzako Bizkaiako Gizarte Langile batek (kolegiatu gabea) jasotako salaketa baten ondorioz, Osakidetzak 8/2014 Instrukzioa gogorarazi die Gizarte Langileei. Instrukzio horretan, Euskal Osasun Sistemak Historia Klinikora sartzeari debekatzen die Gizarte Langileei kasuetan esku hartu ahal izateko, pertsonaren baimenik aurretik eskatu ez badute. Instrukzioa 2014koa bada ere, urte hauetan guztietan ez da horrela jokatu, horrek zaildu eta eragotzi egiten duelako Osakidetzako pazienteekin esku-hartze biopsikosoziala egokia egin ahal izatea.. Horrez gain, Gizarte Langileek Historia Klinikora sartu ahal izan dute barneko aplikazioaren bidez.

Hiru idazkariak eta abokatuak hainbat bilera egin ditugu hiru lurraldeetako elkargokide diren Osakidetzako Gizarte Langileekin, eta bi idazki bidali ditugu Osakidetzako Zuzendaritzara, informazioa modu homogeenan eman dezaten eskatzeko, Gizarte Langileek Historia Klinikora sartzeko irizpide bateratuak ezarri ditzaten.

Horri erantzunez, adostasun eredu bat sortzen eta beste sarbide mota batzuk ezartzen ari direla adierazi du Osakidetzak.

Gure kolektiboaren barruan iritzi desberdinak dauden arren, guztiak ados daude osasun arloko beste profesional batzuen baldintza berberak eduki behar dituztela HKra sartu ahal izateko, izan ere, gure lanbidea osasun-lanbidea izan ez arren, ezinbesteko figura delako gure osasun-sistema publikoan, duela 40 urte baino gehiagotik.

2023. urterako, Osakidetzako Gizarte Langileekin eta gure abokatuarekin batera, txosten bat egingo da, Osakidetzaren aurrean instrukzio hori aldatzeko edo ezabatzeko beharra argudiatuz, beste Autonomia Erkidego batzuetako informazioa emanez, non Gizarte Langileek Osasun Arloko beste profesional batzuen baldintza berberetan sartzeari diru HKan, datuen babesa arriskuan jarri gabe. Hiru elkargoen artean arlo soziosanitarioko lan talde bat sortzeko aukerak aztertzen ari gara, gai hau eta lan eremu honekin lotuta dauden beste gai batzuk jorrazteko helburuarekin.



- **Elkargotik egindako ekarpenak**

Desgaitasun Graduaren Errege Dekretua

Desgaitasun Graduaren Errege Dekretu Proiektuaren ekarpenak egin genituen Elkargotik, egungo egoeraren balorazioa egiteko Gizarte Langintzako profesionalek duten garrantzia azpimarratuz. GLko Kontseilu Orokorrari igorri genizkion beste Elkargoetatik eginiko proposamenekin batera sar zitzaten, Ministeriora bidali aurretik.

Gainera, 8/2021 legearen aldaketak (desgaitasuna duten pertsonak) izango duen inpaktua aztertzeke, Elkargoak hainbat formakuntza antolatu zituen eta entitate desberdinetako ordezkariak ekarri zituen.

Gizarteratzeko V. Plana

Gizarteratzeko V. Planaren oinarrien dokumentuaren ekarpenak egin ziren Elkargotik.

Haur eta nerabeei buruzko lege aurreproiektua

EAEko Gizarte Langintzako hiru Elkargo Ofizialen izenean ekarpenak aurkeztu ziren. Lege horretan, Euskal Hezkuntza Legearen zirriborroa aipatzen zen, 2023an onartzea aurreikusten dena. Bertan, ikastetxeetako lanbide figura berri bat aipatzen da, **ongizate eta babeseko koordinatzailea**, baina ez dago zehaztuta figura berri horretarako zer profil profesionalak ezarriko zaien.

Munduko nazio gehienetan baita Estatuko Autonomia Erkidegoetan, Gizarte langintzaren presentzia hezkuntza sisteman ezinbestekoa da. Gizarte Langileak erreferentziatzko figurak dira ikastetxeetan, ikasleek dituzten gizarte-beharrei dagokionean, indarkeriaren aurrean hautemate, aholkularitzako, esku hartzeko eta koordinatzeko funtzioak betetzen dituzte, eta ikasleen ongizatea eta babesa bilatzen dute. Gizarte Langileak prestakuntza espezializatua dugu eta eskola adinean dauden adingabeen ongizatea eta babesa koordinatzeko gaitasun profesionalak ditugu. Horrexegatik, ikastetxeetan ongizate eta babeseko koordinatzaile lanak egiteko Gizarte Langintza profil profesional gaitutzat eta egokitzat hartua izan dadila eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari.

Egun, hiru Gizarte Langile baino ez daude lanean euskal hezkuntza sistema publikoaren barruan, eta Gizarte Langintzako Elkargoek aspaldidanik eskatu diogu EJKo Hezkuntza Departamentuari Gizarte Langileen plazak areagotzea, euskal ikasle guztiei arreta profesionala ematen zaiela bermatzeko.

2.- ELKARGOKIDEEI ZERBITZUAK

INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA PROFESIONALAREN ZERBITZUA

Elkargoak aldizkako informazio zerbitzua eskaintzen die elkargokide guztiei.

Astero, berripapera bat bidaltzen da eta bertan, barneko albistek, prestakuntza, legedia, bibliografia eta maila orokorreko berrien informazioa jasotzen da.



Elkargoak eskaintzen duen beste zerbitzu bat **aholkularitza profesionala** da. Idazkaritzak elkargokideen eskaerak jasotzen ditu telefono bidez, posta elektronikoz edo aurrez aurre. Zerbitzu hori honela banatzen da:

- ❖ Kontsulta teknikoak: idazkari teknikoak ebazten ditu, lan gehigarria dakarte dokumentazioa aldetik eta batzuetan abokatuaren aholkularitza juridikoa behar izaten da. .
- ❖ Kontsulta administratiboak: Idazkariak edo administrariak ebazten ditu. Posta elektronikoz eta telefonoz jasotzen dira.
- ❖ Kontsulta juridikoak: Elkargoak **Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorreko Aholkularitza Juridikoaren** laguntza du izaera juridikoko kontsultak ebazteko. Hala ere, Kontseilu Orokorrari eta Estatuko 36 Elkargoei zerbitzua ematen dionez, eta jasotzen diren kontsulten kopurua gero eta handiagoa denez, kontsulten erantzunak atzeratu egiten dira. Horregatik, ATE Aholkularitzaren zerbitzu juridikoak kontratatu ditugu, elkargokideek dituzten lan arloko kontsultei eta araudi, proposamen, Gizarte Langintzaren balioa eta defentsarekin zerikusia duten kontsulta juridikoei arrazoizko epean erantzun ahal izateko.

OPOSAKETAK

2022. urtea, Estatuan enplegu publikoa egonkortzeko ezarritako araudi berriaren aplikazioak markatu du, zehazki, 20/2021 Legea, **enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei** buruzkoa. Ondorioz, EAEko eta Gipuzkoako administrazio askok plaza publikoak egonkortzeko prozesuak onartu dituzte, lehiaketan eta oposizio-lehiaketan bidez.

Lege honek elkargokide askori eragiten zien, hainbat administrazio publikotan Gizarte Langile gisa jarduten zutelako bitarteko funtzionario gisa. Elkargoa lan arloko abokatu batekin harremanetan jarri zen informazio-ohar bat lantzeko, elkargokideek lege berriak dakartzan aldaketak errazago uler ditzaten.

20 administrazio publiko baino gehiagotako GLEko edo beste batzuetako (berdintasun-teknikaria) lanpostuak lortzeko lehiaketei eta lehiaketa-oposizioei buruzko informazioa zabaldu da. Hauen artean:

- Osakidetza
- Orereta
- Irún
- Eusko Jaurlaritza
- Espetxeak
- Talde psikosozialak
- Ibaiondo zentroa
- Peritatze soziala

OSAKIDETZA EPE 2022ari dagokionez, Elkargoa Bizigai akademiarekin akordio batera iritsi zen eta ondorioz, oposaketako gaiak prestatzeko antolatu zituzten ikastaroetan parte hartu zuten elkargokideek diskontuak izan zituzten.

Elkargotik lan taldea ere antolatu zen, Osakidetzako Gizarte Langintzako plazetarako gaiak prestatzeko.



OPOSAKETEN DEIALDI BATERATUA

2021ean hasitako lan ildoetako batekin jarraituz, azken urteetan argitaratutako Glen oposizio-lehiaketan oinarriak eta prozedurak aztertu ondoren, eta administrazio bakoitzak bere irizpideak finkatzen dituela egiaztatu ondoren, nahiz eta zilegi izan, Elkargoak beharrezkotzat jotzen du arau eta irizpide komun batzuk ezartzea, hautaketa prozesuetara baldintza berdinetan sartzea errazteko, Udalek, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak horrelako prozesuetara zuzentzen dituzten baliabideak amortizatuz eta maximizatuz. Gainera, Administrazio Publikoak dituen beharrei erantzuna emateko, lan poltsetan beti hautagaiak egotea bermatuz. Helburu horrekin, Bizkaia eta Gipuzkoako Elkargoek txosten bat egin dute ATE Asesores enpresako abokatu Gabriela Oiarzabalekin batera, lehiaketa-oposizio eta lan-poltsen deialdiak bateratuak izateko proposamen errealak eta egingarriekin prestatu da txostena.

Proposamena Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta Eudelei igorri diegu. Azken honek gure proposamena positiboki baloratu du, eta ezarpena baloratu nahi izan du, baina Enplegu Publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko 20/2021 Legeak gaur egun duen egoera dela eta, administrazioak plaza horiek salbuespenezko prozesuekin betetzen ari dira, eta hau guztia amaitu ondoren, Elkargoarekin bilera bat egin nahi dutela jakinarazi digute, gure proposamenari aztertu ahal izateko.

Gainera, Elkargotik lan talde bat sortzea proposatu zen, Gizarte Langileen kategorian oposizio-lehiaketak antolatzeke ardura duten administrazioei proposamen bat egin ahal izateko. 2022an, talde horretako kideak behin bildu ziren, eta horietako batek eta Elkargoko Batzordeko kide batek aztertu dituzte azken urtetan argitaratu diren lehiaketan oinarriak eta prozedurak.

Irizpide bateraturik ez dagoela egiaztatu da, ez gaitan, ez prestakuntza puntuazioetan, ezta proba psikoteknikoetan, profilean eta profesioigramaren argitalpenean. Zalantzak sortu dira gainera balioari buruz, azken proba hori baztertzaila delako eta plaza lortu duen profesionalaren gaitasuna baloratzeko praktikaldi bat dagoenean.

GIZARTE LANGILEAREN DEFENTSA EREMU FORENTSEAN

Haurrak babesteko “Baranahus” ereduaren ezarri zenetik, Gizarte Langilearen figura baztertua izan da eremu forentsean. eta, zehatzago, sexu-abusuen kasuetan aurrez eraturako proban aditu forentseak egiten duen elkarrizketa kognitibo-kontestualaren praktikan. “Barnahus” ereduaren jatorrizko dokumentuan, prestakuntza espezializatuaren beharra azpimarratzen da, baina elkarrizketa hori ez da psikologiaren teknika eskusibotzat hartzen.

Auzitegi Medikuntzako Institutuari atxikitako Gizarte Langile batzuk, sinesgarritasunaren eta gizarte kaltearen ebaluazioak egiten ari dira adingabeko sexu abusuen biktimak direnei, eta jurisprudentzia eta nazioko eta nazioarteko errekonozimendua lortu dute.



Haurrei eta nerabei indarkeriaren aurka osoko babesaren emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organiko berriaren 449. artikulua adierazten duenez, alde aurretik eraturako proba diziplina artean egin behar dela, baina EAEn, talde psikosozialek aurrez egindako probetan ez dute Gizarte Langilerik sartzen haurren abusu kasuetan, eta, horrela, abusuaren testuinguru soziala eta familiarra ebaluatzea galarazten da, baita ondorio eta lesio sozialen balorazioa ere.

Egoera honen aurrean, Arabako Auzitegiko Medikuntzako Institutuko Gizarte Langile batek laguntza eskatu zuen, eta elkargokidearen eta hiru elkargoen izenean idazki bat bidali zen Justizia Zuzendaritzara, bilera bat eskatzeko, Gizarte Langileak arlo honetan bete ditzakeen eginkizunak argitu eta defendatzeko helburuarekin.

NOMENKLATURAREN ERABILERA EGOKIA

Urteak daramatzagu gure profil profesionalaren erabilera egokiari buruzko informazioa jasotzen duten idazkiak bidaltzen; izan ere, administrazio eta erakunde publiko eta pribatu batzuetan “*Asistente social*” terminoa erabiltzen jarraitzen dute, edo euskararen kasuan “*Gizarte Laguntzailea*” terminoa. Hautematen dugunean, idazkiak bidaltzen ditugu, zuzenketa gomendatuz eta “*Trabajador/a Social*” eta “*Gizarte Langilea*” erabiltzeko eskatuz.

2022. urtean 12 idazki igorri ditugu Gipuzkoako hainbat udaleta, publikazio ofizialetan erabilera egokia eta zuzenketa eskatuz.

LAN ESKAINTZEN KUDEAKETA

Elkargoak kudeatzen ditu lan-eskaintzak, eta horien berri hainbat bidetatik edo **erakunde enplegatzaileak berriaz eskatuta** izaten du.

2022an, Elkargoak 35 lan eskaintza zabaldu ditu eremu pribatuan. Elkargokideei berehala zabalitzen zaie posta elektronikoz, eta, aldi berean, Elkargoaren web orrian zintzilikatzen dira, lan eskaintza hauen atala mugatua da eta elkargokideek sartu daitezke soilik atal horretan. 2022. urtean, bi lan eskaintza zabalteari uko egin diogu, lan eskaintza batek bete behar dituen gutxiengo baldintzak betetzen ez zituela ulertu genuelako.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Gipuzkoako Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialeko Estatutuak onartzen duen 2000. urteko irailaren 4eko Aginduak dionez, 19. artikuluan: *Elkargokideen betebeharrak, n puntua) “lanbide profesionalaren jardutearen ondorioz egon daitezkeen ondorioengatik, erantzukizun zibileko aseguruaren bidez babestu”, 18/1997 Legeak 12. artikularekin dionarekin bat eginez.*

Elkargokideek honako baldintza hau bete dezaten errazteko, Elkargoak arrazoizko kostua duen aseguru eskaintzen du, Kontseilu Orokorrak nazio mailan sinaturako akordio bati esker, Broker’s 88 izenekoa. Egun, hogeitabat elkargokide inguruk eskatu dute aseguru hau.



LIBURUTEGIA

Liburutegiak mailegu zerbitzua eskaintzen die elkargokideei. 2022.urtean, oso elkargokide gutxi erabili dute, argitalpen gehienak interneten aurki daitezkeelako.

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Elkargoak kolektiboaren prestakuntza beharrak jasotzen ditu eta kolektiboarentzat interesgarriak diren gaien programazioa sustatzen du.

(Ikus memoria honetan dagokion atala)

TEKNOLOGIEN ERABILERA ETA KONPROMISO BERRIAK

POSTA ELEKTRONIKO PROFESIONALEKO KONTUA

2022. urtetik aurrera, posta elektronikoa profesionala nahi duten elkargokideek Elkargoari eskatu beharke die, doakoa da ta elkargokidetzari baldintzatuta dago. Iaz arte, Kontseilu Orokorra arduratzen zen korreo hauek kudeaketaz.

ELKARGOKIDE KARNETA

Karneta fisikoa erabat desagertu da. Orain digitala da, elkargokideei emailaz igortzen zaie, deskargatu ahal izateko.

E-POSTA, WEBGUNEA ETA SARE SOZIALEN BIDEZKO KOMUNIKAZIOA

Posta elektronikoa da oraindik elkargoaren eta elkargokideen arteko komunikazio bide nagusia. Elkargoaren webgunean elkargokideek soilik eskura ditzaketen hainbat atal daude. Elkargoak Facebook, Twitter, LinkedIn eta Youtubeko kontuak ditu.

ELKARGOAK EUSKARAZ

Gipuzkoako Elkargoak euskararen normalizazioan urratsak emateko konpromisoa hartu zuen lan arloan, eta horretarako akordio bat sinatu zuen BASQUEPRO erakundearekin. Ondorioz, **ELKARGOAK EUSKARAZ**en bitartez, euskara sustatzeko hainbat zerbitzu eta tresna eskaintzen dira, eta horien berri ematen zaie elkargokideei, Jakizu buletinaren bidez. Gainera, zerbitzu-zorroaren barruan, ikastaroak, motibazio-jarduerak, komunikazioko jardunbide egokiei buruzko prestakuntza, informazio eguneratua eta baliabide teknikoak (hiztegi teknikoak, zalantza-bankua, foroak....eskaintzen dira.

Elkargoaren Euskara Plana ere egin dugu, eta plana ebaluatu ondoren, euskararen erabilera % 69ra igo dela ikusten da. Hobekuntzen artean, Euskaraldiaren ekimenetan parte hartzea, Batzordean euskararen erabilera areagotu egin da, dokumentu elebidun gehiago egin dira, Gizarte Langintzako hiztegi propioa egin da gure kolektiboak egunero erabiltzen dituen hitz teknikoekin, etab.

KULTUR ATELIER

Gainera, 2021ean **Kultur Atelier komunikazio agentziarekin** lehen harremanak izan ondoren, Elkargoaren komunikazio estrategia hobetzeko helburuarekin, 2022an Elkargoko bideo korporatibo bat egin zen, G. Batzordeko kideen eta beste elkargokide batzuen partaidetzarekin. 2023an aurkeztuko da ofizialki. Elkargoaren *“branding estrategia”* ere egin da. Podcast-a egiteko aukerak



baloratzen ari gara, gure ezagutzak gure kolektiboan zabaltzeko, bai eta gizartean egiten dugun lana ezagutarazteko eta balioan jartzeko.

PIKARA MAGAZINE

PIKARA MAGAZINE aldizkarira harpidetu ginen 2022. urtean, kalitatezko kazetaritza egiten duelako ikuspuntu feminista batetik. Argitaratzen dituzten artikulua gure kolektiboarentzat erabilgarriak direla uste dugu Elkargotik, gai mota guztiak jorratzen dituztelako, gai sozialak, politikoak, kulturalak ta beti begirada kritiko , transgresore eta feminista batetik.

3.- DEONTOLOGIA PROFESIONALA: HERRITARRENTZAKO BERMEA

2022an, Elkargoak herritar baten erreklamazioa jaso du. Izendatutako Deontologia Batzordeak kexaren largespena proposatu zuen eta ondoren, Gobernu Batzordeak berretsi zuen. Prozedura diziplinarioa abian jartzeko datu objektiborik ez zegoela argudiatu zen.

Azken urte hauetan, GLen jarduerari buruzko kexak areagotu dira baino zigorrik ez da jarri inongo kasutan, elkargokide profesionalaren praxi txarrarik ez delako frogatu.

Diziplina-ahalmenari buruz Estatutuek diotena aplikatu ahal izateko abokatu baten aholkularitza jaso dugu, kontrol deontologikoa izanik Elkargoaren funtzioetako bat. Estatutak 2000. urtekoak dira eta atal hau, beste batzuen artean, eguneratu eta aldatu beharra dago, prozedura erraztu ahal izateko, inplikaturik dauden bi alderdiei legezko legeak bermatuz.

Deontologia Batzorde egonkor bat sortzeko beharra baloratzen da, Euskadi mailan prestatua eta aholkatua, Elkargoetara iritsi daitezkeen kexa eta salaketei erantzun egokiak eman ahal izateko.

4.- PARTAIDETZA ETA ERAKUNDETAN ORDEZKARITZA

GIZARTE LANGINTZAREN KONTSEILU OROKORRA

Gizarte Langintzaren Kontseilu Orokorra Estatu osoan banatutako 36 Elkargo Ofizialen ordezkari-organoa da.

2022an ohiko bi batzar egin ziren, eta bietan Rosa Ugalde Elkargoko lehendakariak parte hartu zuen. Lehenengoa martxoaren 12an eta bigarren abenduaren 16an. Kontseilu Orokorreko Gobernu Batzordea hautatzeko bozketa egin zen azken bileran. Emiliana Vicente Gonzálezek jarraituko du Kontseilu Orokorreko Presidentea izaten datozen lau urtetan eta Alvaro Gallok ere, Gipuzkoako elkargokidea, Gobernu Batzorde berriko bokala izaten jarraituko du.

Gainera, lau urtean behin antolatzen den Gizarte Langintzaren Kongresu Iberoamerikarra ospatu zen, maiatzaren 26tik 28ra Ciudad Realen, estatu guztiko 900 profesional goratik parte haru zuten. Gipuzkoatik, Rosa Ugaldez gain, beste elkargokide batzuk ere bertaratu ziren eta ponentziak aurkeztu zituzten.



Gipuzkoako Elkargoak **Osasun arloko Elkargoarteko Gizarte Langintzaren Jardunaldian** ere parte hartu zuen, Zaragozan martxoaren 25ean ospatu zena, Elkargo desberdinetako Osasun Batzordeetatik gai honi buruz jorratzen ari diren ekintzak ezagutzera eman ziren eta etorkizunerako aurreikusten ziren planteamendu eta erronkak aztertu ziren.



Hizkuntza eskubideak

Haurren babesgabetasunaren eta tratu txarren balorazioei eta koordinazioei buruzko galdetegi bat Estatuko sei hizkuntza ofizialetan egin ondoren, Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorrak gaztelaniaz soilik bidaltzea erabaki zuen. Gertaera honen arira, Gipuzkoako Elkargoak ohar bat egin zuen, banakako zein taldeko hizkuntza eskubideak sustatzeko eta errespetatzeko eskatuz. Idazkia Kontseilu Orokorrera, Estatuko 36 Elkargoetara eta Gipuzkoako elkargokide guztiei helarazi genien.

ELKARGOARTEKOAK

2022. urtean bilera birtual bakarra egin da EAEko hiru elkargoetako presidenteen artean, maiatzaren 18an. Bertan gai garrantzitsuak jorratu zituzten, hala nola Administrazio Publikoetako langileriaren eskalak eta kategoriak, EZIAk, diziplina arteko taldeak eratzea, Lanbide Heziketako profilak unibertsitateko tituludunei soilik zegozkien funtzioak betetzen dituztela gaur egun, Gizarte Langileen berariazko funtzioak, OARC ebazpenak....

Kontseilu Orokorra osatzen duten Elkargo guztietako Presidentek ohiko hartu-emanak mantentzen dituzte horretarako prestatutako baliabideei esker, Euskal Autonomia Erkidego osoari dagozkion eta kolektibo gisa dugun jarrera eskatzen duten gaiak ugariak baitira.


EUSKO JAURLARITZA

BILERAK	BATZORDEAK	ORDEZKARIA
2022/07/12	<i>Haurrak eta nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala</i>	Alvaro Gallo (Gipuzkoa)
2022/06/10	<i>Familiaren Euskal Kontseilua</i>	Ainhoa Resano (Bizkaia)
2022/04/27 2022/07/20	<i>Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra</i>	Ernesto Notario (Bizkaia)
2022/05/31	<i>Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua</i>	Gotzon Villaño (Araba)

UDALAK

BILERAK	LAN TALDEA	ORDEZKARIA
2022/01/25 2022/05/09 2022/12/01	Donostiako Udaleko Gizarte Kontseilua	Rosa Ugalde
2022/03/30 2022/07/20	Gizarte Ekintzako Kontseilu Sektoriala	Rosa Ugalde

GIZARTE KONTSEILUAREN SARIA




Donostiako Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuran, maiatzaren 9an, 2022ko **Gizarte Kontseiluaren Sariaren oinarriak** onartu ziren, gure inguruko pertsonen bizitzak hobetzeko sortzen diren herritarren ekimenak ezagutarazteko eta balioesteko helburuarekin. Hiriko Gizarte Kontseiluak udaberrian jarri zuen abian **Gizarte Kontseiluaren Sariaren lehen deialdia**.

Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargoak HIRITARRON HARRERA SAREA - RED DE ACOGIDA CIUDADANA hautagaitza aurkeztu zuen, eta lehen saria irabazi zuen. Erakundeak kalteberatasun

egoeran dauden gazte migratzaileei laguntza ematen die.

PONENTZIA - "DONOSTIAR BERRIAK"



Leire Irastorzak, Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko Idazkaria, **“Alderdi sozialak: adinekoen zaintza, zaintzaileen egoera”** ponentzia aurkeztu zuten, Donostiako Udaleko Gizarte Kontseiluko bileran, **“Donostiar berriak”** espazioaren barruan, joan den maiatzaren 9an.

UNIBERTSITATEAK ETA ELKARGOAK

- **Lankidetzaren Elkargoa eta EHUren artean “Gainbegiratzea gizarte ekintza testuinguruetan” berezko titularen garapenarako– Gainbegiratze Graduondokoa**

UPV/EHUK Gainbegiratze Graduondoaren bigarren edizioa eskaini du 2022-2023 ikasturtean, **“Gainbegiratzea gizarte ekintza testuinguruetan”**. Aurreko ikasturtean bezala, EAEko Gizarte Laneko hiru Elkargoek ekonomikoki lagundu dute prestakuntza horretan, Gizarte Langintzako profesionalak gainbegiratze lanetan trebatzeak duen garrantzia dela eta. Gainbegiratzea prozesu teoriko-praktiko bat da, diziplinaren garapenarekin zuzenean lotuta dagoena, eta Gizarte Zerbitzu eta erabiltzaileekin egiten den lanean gaitasun profesionala, jardunbide egokiak eta kalitatea areagotzea bilatzen du. Horregatik, arlo honetan prestakuntza sustatzeko beharra ikusten da. Administrazio publikoek, hirugarren sektoreko erakundeek eta gure kolektiboko profesionalak ere gainbegiratzearen garrantziaz kontzientziatzeko beharra ere ikusten da.

- **Gradu amaierako lana - Gai proposamenak**

Elkargoa eta Gizarte Langintzaren Unibertsitateen arteko lankidetzaren aberasgarria eta beharrezkoa dela deritzogu, kolektibo profesionalaren eta GLko ikasleen arteko lotura sustatzea ezinbestekoa delako.

UPV/EHUko Gizarte Langintzako Fakultateak lankidetzaren eskatu zigun, profesionalen lanbiderako interesgarriak ziren gaiak proposa zituzten, ikasleei Gradu Amaierako Lanerako proposamen gisa eskaini ahal izateko.

Elkargoak elkargokideei luzatu zien proposamena, eta gai interesgarriak mahaigaineratu ziren, hala nola, parte hartze komunitarioa eta migratuen kolektiboaren ekarpena zainketetan, diagnostiko sozialaren errealitatea, Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa sare sozialetan, esku-hartzetan jardunbide egokiak genero-ikuspegitik, etab.

KOMJNIKABIDEAK



Ukraina.- Ukrainako gerraren hasiera zela eta Espainiako Gobernuak ukrainarren aldi baterako kontratua erregularizatzeko ezarritako legezko prozeduren ondorioz, GLko Elkargoak ohar bat igorri zuen, aldi baterako babes-neurri horiek antzeko egoeretan dauden pertsona guztiei ez zaizkiela zabaltzen salatzeke, eta diskriminatzailetzat jotzen genuela hartutako politikek gainerako migratzaileak kanpoan uzten zituelako, hauek ere beren jatorrizko lekuetatik ihes egin behar izan dutelako.

Komunikabideetara bidalitako prentsa-oharraz gain, elkargokideei beren iritziak jasotzeko deialdia luzatu zitzairen, administrazio publiko eta erakundeei bidaliko zitzairen posizionamendu-idazki bat prestatzeko.



Melilla eta etorkinei harrera egitea.- Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialetik azken hilabeteetan jatorri desberdinetako etorkinen inguruan gertatzen ari ziren gertakari tamalgarrien aurrean ere posizionatu ginen. Gizarte Langintzak giza eskubideak defendatzearen eta aldarrikatzearen aldeko apustua egiten du, eta eskubide horiek urratzen direnean, gure desadostasuna adieraztea eta giza eskubideak errespetatzen ez dituzten ekintzak salatzea beharrezkoa da.

- **Gizarte Langintzaren Jardunaldia**

Gizarte Langintzako XV Jarduera **“Suizidioa, Gizarte Langintza gogoetak”**, Arabako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak eta UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintzaren Fakultateak antolatzen duetena, urriak 20ean ospatu zen. Gipuzkoako Elkargoa Rosa Ugaldek (Lehendakaria) eta Leire Irastorzak (arduraduna) ordezkatu zuten.



- **Elkargoaren aurkezpena – Deustoko Unibertsitatea**

2022. urtean, ezin izan genuen Elkargoaren ohiko aurkezpena egin Deustuko Gizarte Laneko Fakultatean, azken ikasturteko ikasleen aurrean.

UPV/EHUko Gizarte Langintzako ikasleen aurkezpenaz Rosa Ugalde arduratu zen.

Gure ustez, garrantzitsua da ikasketak amaitzeaz eta lan munduan hastear dauden ikasleek Elkargo Profesionala zer den eta zer egiten duen jakitea. Unibertsitatean bertan, ikasleen eta Elkargoaren arteko topaketa hau urte askotan egin da eta datozen urteetan mantentzea espero dugu.

4. PRESTAKUNTZA

200 pertsona inguruk hartu dute parte 2022. urtean antolatutako hitzaldi/ikastaroetan:

HILABETEA	HITZALDIA	HIZLARIAK
Urtarrilak 13	Gizarte Zerbitzuak eta desgaitasuna "Desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizimodu independentearen eredura bideratzeko esku-hartze sozialak"	Rosa Ugalde Mikel Malcorra
Otsailak 7-8	"Nortasunaren eneagrama" (bertan-behera izen-emate faltagatik)	Anahí L. Marful
Otsailak 22	·La dimensión terapéutica del TS" liburuen aurkezpena	Lola Urraca
Otsailak 2-9-16-23	"Kasu praktikoak Gizarte Langintzan"	Ainhoa Berasaluze Charo Ovejas
Martxoak 10	"Balorazioa soziofamiliarreko eskala", Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Elkargoek antolatuta.	Alikanteko Unibertsitatea
Martxoak 25	Ukrainari buruz hitzaldia	CEAR
Apirilak 28	Desgaitasuna duten pertsonen buruzko hitzaldia: 8/2021 legearen gakoak.	Reyes Goikoetxea
Maiatzak 3	Esku-hutsik Elkarteen aurkezpena.. Euskadiko Haurdunaldi, Erditze eta Jaioberrien Dolu Elkartea.	María González Gómez
Maiatzak 30	Hitzaldia - Erreforma zibila eta prozesala,+ desgaitasuna duten pertsonak	Hurkoa Olaia Arana
Ekainak 27	Charla "Desgaitasuna duten pertsonak eta gaitasun juridikoa: Zuzenbide Zibilaren erreformaren inpaktua ta babes sisteman eragina"	Elkartu Mikel Malkorra y Rosa Ugalde
Irailak 22	Gizarte Langintza Klinikoa - Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Elkargoek antolatuta.	Jonathan Regalado
Irailak 26	Autozaintza profesionala. Ondo egon hobeto jarduteko.	David Mustieles Muñoz
Urriak 3-10-17-24	Prestakuntza "Borondate aurreratuak"	Javier Aramendia (Bihotzetik)

Urriak 25	8/2021 Lege Organikoari buruz hitzaldia, ekainaren 4koa, haur eta nerabeen babeserako indarkeriaren aurrean.	Reyes Goikoetxea
Azaroak 2	Atzerritartasunean prestakuntza.	BILTZEN
azaroa - apirila (hainbat data)	Gainbegiratze profesionala: Jardute profesionala eta autozaintzaren hobekuntzarako etengabeko prestakuntza. (bertan behera izen-emate faltagatik)	Batzuk
azaroa - abendua (hainbat data)	Elkarrizketa eta aldaketak esku-hartze sozialean. (bertan behera izen-emate faltagatik)	David Mustieles
Azaroak 10-17	Balora tresna	Raul Merino eta Eli Murugarren
Azaroak 28	"Zaintza aringarriak eta hauen kudeaketa sistema soziosanitarioaren barruan"	Montse Perez Garcia
abenduak 13 eta 20	Doluan prestakuntza	Itsaso Rodríguez

5. GIZARTE LANGINTZARI BALIOA EMANEZ

GIZARTE LANGINTZAREN MUNDUKO EGUNA


GIZARTE LANGINTZAREN MUNDUKO EGUNA– 2022KO MARTXOAK 15

“Mundu ekosozial berri bat elkarrekin eraikitzen: inor atzean utzi gabe”



2022 Gizarte Langintzaren Munduko Egunean Elkargotik ez genuen ekitaldi zehatzik antolatu, hala ere, beste Elkargo/entitate/Unibertsitateak antolatutako ekintza mota ugarien berri eman genuen, egun honek gure kolektibo profesionalean duen garrantzia azpimarratzeko. Urtero martxoaren hirugarren asteartean ospatzen da.

2022ko Lan ardatzak



2022 LAN ARDATZAK

GAUZATUTAKO EKIMENAK

Gipuzkoan eta Euskadin
Gizarte Langintza
lanbidearen egoera
ezagutu eta ezaguarazi



- ✓ Ukraina, Melilla eta etorkinen harrerari, eta elkargokideen hizkuntza-eskubideei buruz egindako prentsa-oharrak eta iritzi emate.
- ✓ Esparru akademikoaren eta profesionalaren arteko lankidetzaren unibertsitateekin, beste ikastetxe batzuekin, erakundeekin eta abarrekin, hausnarketarako espazio bateratuak sortzeko, ezagutzak zabaltzeko, gure irudia defendatzeko, posizionamenduak egiteko eta abar.
- ✓ EJri zuzendutako lanbide-profilari buruzkoa idazkia, Eudel deialdi bateratuak e.a.

Gizarte Langintzako
profesionalen beharrak
aintzat hartu eta dituzten
interesak defendatu



- ✓ Erregularitasunez informatzea eta aholkatzea gai hauei buruz: interes profesionala, asteroko buletina, oposizio-lehiaketako prozesuak, erakunde pribatuen lan eskaintzak, lan-aholkularitza horretarako kontratatutako abokatuaren bidez, aholkularitza teknikoa, etengabeko prestakuntza.
- ✓ Gizarte-langileen autozaintza eta jardunbide egokiak sustatzea, autozaintzaren eta gainbegiratzearen bidez. Lankidetzaren ekonomikoa UPV/EHUko prestakuntzarekin, gainbegiratze-zerbitzua zabaltzeko, prestatutako elkargokideen taldearen arabera.

2022 LAN ARDATZAK

Profesionalen arteko hartu-emanak sustatu eta jardute profesionala erraztu

- ✓ UPV/EHUren Estatuko Kongresuan eta Jardunaldi Profesionalean parte hartzea, Eusko Jaurlaritzako batzordeen bileretan.
- ✓ Osasun Arloko, Osasun Mentaleko, arduradunetako eta adingabeetako lantaldeak sortzeko proposamenak jaso dira. Horietakoren bat sortu da, eta gainerako taldeak datozen hilabeteetan sortzen saiatuko dira.
- ✓ Eguneroko praktika profesionalari eragiten dioten araudi eta lege berriei buruzko doako informazio-hitzaldiak eskaini dira gaien adituak diren emakumeekin.

Lanbidea Administrazio Publikoan, Hirugarren Sektorean eta aholku-emaile erakundetan ordezkatu

- ✓ Batzordearen jarrerak sortzea gizarte-babeseko gaien aurrean, sektoreko profesionalen laguntzarekin.
- COTSa erakunde publikoei aurkeztea planifikatzea, eta hauteskunderen ondoren 2023an egitea.
- Elkargoko Batzordearekin elkarlanean arituko diren profesionalen sare bat eratzea. Asmoa da EAEko beste bi elkargoekin batera hainbat gizarte-eremutako aditu laguntzaile garrantzitsuen eta espezialisten zerrenda bat sortzea.

2022 LAN ARDATZAK

Babes sozialeko sistemarekiko dugun ikuspuntua gizarteari helarazi

- ✓ Gaur egun dauden gizarte-babeseko gaien aurrean Batzordearen jarrera lantzea, proposamenak egin ditzaketen sektoreko profesionalen (zuzenean kontsultatuak) laguntzaren bidez.
- ✓ Estrategia komunikatiboa: Branding bat eta bideo korporatibo bat egin dira gure Elkargoaren eta Gizarte Laneko kolektibo profesionalaren lana ezagutarazteko eta balioesteko.

Hiritarren eskaerak artatu profesionalen okerreko praxietan

- ✓ EAEn Batzorde Deontologiko baten sorrera erraztea eta erraztea, profesionalen praxi txarragatik herritarren kezak jasoz gero kontrol deontologikoa eraman ahal izateko. Auzitegi Gorenaren Kontseilu Nagusiaren prestakuntza jaso da. Gizarte-langileen gaitasunak, deontologiak, etikak eta jardunbide egokiek gure lanbide-nortasunaren alde egiten dute, eta gizarte-laneko lanbidearen irudia indartzen dute, esku-hartzera bideratutako diziplina zientifiko baten ondorioz.



GIZARTE LANGILEEN ELKARGO OFIZIALA Data : 2022/12/31

EGOERA EKONOMIKOAREN BALANTZEA 2022ko Ekitaldia

	Balantze ekonomikoa 2022	Aurrekontua 2023
1. Negozio zifraren zenbateko garbia	123.581,32	125.900
7000001 LIBURU SALMENTA	0	300
7050002 ELKARGOKIDE KUOTAK ETA MATRIKULAK	117.975,50	118.000
7050004 IKASTAROENGATIK DIRU-SARRERAK	5.399,90	7.000
7050006 G.L. MUNDUKO EGUNARENGATIK DIRU-SARRERAK	0,00	400
7050008 KONTSEILU OROKORREKO ASANBLADAK DIRU-SARRERAK	205,92	200
4. Zuzkidurak	-465,74	-1.200
6000003 LIBURUEN EROSKETA LIBURUTEGIRAKO	-96,24	-800
6000005 ALDIZKARIEN HARPIDETZA	-369,50	-400
5. Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk	296,00	0
7400000 Ustiapeneko dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	296,00	0
6. Langileen gastuak	-76.800,95	-88.376,37
6400000 SOLDATAK ETA LANSARIAK	-55.894,92	-69.846,61
6420000 GIZARTE SEGURANTZA ENPRESAREN KONTURA	-20.773,96	-18.396,60
6430000 EPE LUZEKO EKARPEN ZEHAZTUTAKO SISTEMAREN ORDAINKETA	-132,07	-133,16
7. Beste ustiapen gastuak	-48.353,63	-60.905
6210001 RENTING FOTOKOPIAGAILUA	-951,06	-1.000
6220000 KONPONKETAK ETA MANTENTZE LANAK (erref. Elkargoa)	-2.439,84	-2.000
6230001 AHOLKULARITZA SAIL	-2.928,20	-3.000
6230002 ATE AHOLKULARIAK (ABOKATUA)	-3.525,16	-4.000
6230004 BESTE ABOKATUAK	-385,74	-1.000
6230003 HIZLARI KOLABORATZAILEAK	-5.070,46	-7.000
6230009 AUTOLIKIDAZIOA KONTSEILU OROKORRA	-13.406,18	-13.500
6230005 GL.. MUNDUKO EGUNA GASTUAK	0,00	-2.500
6230010 DATUEN BABESERAKO ORDEZKARIA	-605,00	-605
6230008 Gbeko GASTUAK- JARDUNALDIAK,BILERAK, PARTAIDETZA (*Bateratu	-4.074,45	-6.000
6250000 ASEGURU PRIMAK	-529,39	-530
6260000 BANKETXE ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK	-494,62	-700
6280001 ARGI HORNIDURA	-946,06	-950
6280002 ZABORRAK UDALA	-425,84	-450
6290003 BATZARKIDEEN ETA LANKIDEEN JOAN ETORRI ETA DIETAK(*)	-1.653,26	0
6290003 POSTA ZERBITZUA	-51,90	-400
6290004 BESTE GASTUAK	-382,53	-400
6290005 GARBITASUNA	-77,75	-100
6290006 TELEFONOA	-629,00	-630
6290007 FOTOKOPIAK	-274,73	-300
6290008 BULEGOKO MATERIALA	-395,12	-600

6290009 KOMUNITATE GASTUAK	-720,00	-720
6290011 MANTENIMENDU INFORMATIKOA	-1.054,24	-1.500
6290012 OMENALDIK ETA SARIAK	-653,13	-700
6290014 LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA	-835,57	-850
6290015 KODE DEONTOLOGIKOK	-635,13	0
6310001 LOKALEKO OHZ	-360,81	-370
627001 KULTUR ATELIER komunikazioa enpresa	-3.483,59	-2.000
627003 ELKARGOAK EUSKARAZ	0,00	-600
6290019 GAINBEGIRAKETA EKARPENA UPV/EHU	-2.000,00	0
A) USTIAPEN EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12)	-1.743,00	-24.581,37
13. Finantza diru-sarrera	0,82	0,82
b) Beste finantza diru-sarrerak	0,82	0,82
7690000 Beste finantza diru-sarrerak	0,82	0,82
14. Finantza gastuak	-25,00	400
6623000 Kreditu erakundeekin zorren interesak	-25,00	400
B) FINANTZA EMAITZA (13+14+15+16+17+18)	-24,18	-399,18
C) EMAITZA ZERGEN AURRETIK (A+B)	-1.767,18	-24.980,55
D) EKITALDIKO EMAITZA (C+19)	-1.767,18	-24.980,55



MEMORIA DE ACTIVIDADES

2022



ÍNDICE MEMORIA DE ACTIVIDADES 2022

1.- EL COLEGIO ¿QUIENES SOMOS?

- ❖ Organigrama
- ❖ Asamblea General Ordinaria
- ❖ Reuniones de la Junta de Gobierno
- ❖ Reuniones varias
- ❖ Grupos de trabajo
- ❖ Aportaciones
- ❖ Situación de la colegiación

2.- SERVICIOS A LAS PERSONAS COLEGIADAS

- ❖ Servicio de información y asesoramiento profesional
- ❖ Oposiciones
- ❖ Convocatorias conjuntas de oposiciones
- ❖ Defensa del TS Forense
- ❖ Gestión de ofertas laborales
- ❖ Tramitación del Seguro de Responsabilidad Civil
- ❖ Biblioteca
- ❖ Formación permanente
- ❖ Uso tecnologías y otros compromisos adquiridos.

3.- DEONTOLOGÍA PROFESIONAL: GARANTÍA PARA LA CIUDADANÍA

- ❖ Servicio de información y asesoramiento profesional

4.- PARTICIPACIÓN Y REPRESENTACIÓN INSTITUCIONAL

- ❖ Consejo General del Trabajo Social
- ❖ Intercolegios
- ❖ Gobierno Vasco
- ❖ Ayuntamientos
 - ❖ Universidades y Colegios Profesionales
 - ❖ Medios de comunicación

5.- FORMACIÓN

6.- DANDO VALOR AL TRABAJO SOCIAL

- ❖ Día Mundial del Trabajo Social



PRESENTACIÓN

Queridas compañeras y compañeros:

Un año más, tenéis en vuestras manos la Memoria del trabajo realizado en el Colegio de Trabajo Social de Gipuzkoa, durante el año 2022. Este año ha estado marcado por una fecha especial e importante por el 40 aniversario del Colegio de Gipuzkoa, excusa única para reflexionar sobre la trayectoria del Colegio y definir las líneas de trabajo futuras. Consideramos importante poner el foco en la historia de nuestro Colegio para darla a conocer y ponerla en valor.

Con la mirada puesta en la historia del Colegio, en 1962 se creó la Asociación de Trabajadores Sociales de Gipuzkoa, conscientes de la necesidad de estar representados colectivamente por las Trabajadoras Sociales de Gipuzkoa y nos complace que en la actualidad seamos más de 700 personas colegiadas en el Colegio.

El 17 de marzo de 2023, fecha cercana al Día Mundial de Trabajo Social (21 de marzo) nos reunimos para festejar por un lado, el 40º aniversario del Colegio de Gipuzkoa y el día Mundial de Trabajo Social, así como rendir un homenaje a todas las personas colegiadas que se han jubilado durante los años 2020, 2021 y 2022, 15 Trabajadoras Sociales que han aportado mucho a nuestra profesión y por ello les hicimos un pequeño homenaje y reconocimiento de la profesión, junto con la entrega de insignia de Trabajo Social a la más veterana de las colegiadas, Ana Sanz Diez de Uribe.

Las líneas del trabajo interno y externo de 2022 se clasifican de esta forma:

A nivel interno, se ha trabajado sobre todo la defensa del Trabajo Social, dar a conocer la profesión, así como realizar un plan de comunicación para fomentar y conocer más nuestro trabajo y el propio Colegio. Asimismo, se ha mantenido aumentada la jornada laboral del equipo de trabajo, con el fin de mejorar la atención a las personas colegiadas y responder a todas las solicitudes que llegan a nosotras.

A nivel externo, se han realizado aportaciones desde la visión del Trabajo Social en diversos ámbitos y actividades y crear alianzas con diferentes entidades y organismos. Líneas de trabajo que se mantendrán en los próximos años.

